

3.

Zestoa

GEUK EGINA

UDAL ALDIZKARIA
2023ko udaberria
Sehilabetekaria | Semestral



argiola

Aitana Etxeberria

Argiola energia berriztagarrien kooperatibako lehendakaria:

“Momentu honetan bi proiektu garatzen ari gara, autokontsumorako instalazio fotoboltaikoak direnak. Bata Aizarnako frontoian eta bestea Arroabeko eskolan”.

Tokiko estrategiaren barruan Udalak bultzatutako energia berriztagarrien komunitateak **bere bidea hasi du.**

ZESTOAKO UDALA

- Foru Plaza 1
20740 Zestoa
- www.zestoa.eus
- Tel. 943 147 010
- administrazioa@zestoa.eus
- t.me/ZestoaGeukEgina

AURKIBIDEA

Sarrera	2
Energia	3
Zaintza	4
Proiektuak	5
Laburrean	6
Herria	7
Herria	8



ZESTOAKO UDALA



energia berriztagarrien
komunitatea

etxebizitza
sozialak

ondarea

kulturartekotasuna

Zestoa
2030

memoria
historikoa

adinekoen mahaia

SASIEN GAINETIK ETA LAINOEN AZPITIK

Legealdi guztiek dituzte berezitasunak, baina esan beharrik ez, amaitzera doan hau benetan izan dela berezia: legealdia hasi orduko Covid 19ak bazter guztiak astindu zizkigun, ondoren greba, Ukrainako gatazkak udal kudeaketan ere izan du eraginik eta pandemiak pertsonengan utzitako arrastoa ere ez da gainditzeko erreza izaten ari.

Zailtasunak zailtasun, legealdi hasieran Zestoa Udala egunerokotasunak irentsita eta aurrera begirako helburu eta perspektibarik gabe zegoen. Herri-tar eta eragileekin parte hartze ariketa zabala egin eta gero, Zestoa 2030 herri plangintza idatzi genuen eta gaur da eguna udalak epe motz, ertain eta luzera begirako ibilbide orria idatzia daukana.

Gobernantza eredu berri baten aldeko apustua egin genuen, datozen urteetako erronka nagusiei aurre egiteko biderik onena gure burua geuk antolatzea zela sinistuta. Horren adibide dira herriko zaintza sistemaren proiektua edo energia berriztagarrien komunitatea. Etorkizunean elkar zaindu beste erremediorik ez dugulako izango eta energia berriztagarria gure lurrian sortu eta kontsumo arduratsua sustatzea dagokigulako.

Zestoa etorkizunera begira dituen erronkak ez dira makalak, tokikoari eutsi ezean gaurko tendentzia globalizatzaile orokorrak irentsiko gaitu eta gureak diren ezaugarriak zaintzea guri dagokigu. Herri euskalduna gara, ondare eta ingurumen aberatsa duena, euren herrietako bizi baldintza larriek behartuta gurera etorri diren pertsonak artatzen jakin duena. Norabide horretan, herrian bizi diren kultura ezberdinen arteko lantzeari ere ekin dio udalak, gure arbasoek utzitako hizkuntza eta kultura kanpotik datozenentzat ere integrazio-rako tresna bilaka dadin.

Memoria historikoa, etxebizitza sozialak, herri eta auzoetako azpiegituren berrikuntzak, Zubiaurre eta 631 errepidea birgaitzeko proiektuak... lan asko dago abian. Elkarrekin sasi eta trabak gaindituz eta lainopean bada ere, errealitateari aurre eginaz, 2030ean Zestoa bizitzeko herri hobetoa izatea lortuko dugu!

AITANA ETXEBERRIA, ARGIOLA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOOPERATIBAKO LEHENDAKARIA:

"Zestoak zer potentzial energetiko duen aztertu behar dugu zer beste teknologia garatu ditzakegun ikusteko."

Tokiko estrategiaren barruan Udalak bultzatutako energia berriztagarrien komunitateak bere bide propioa hasi du. Argiola Kooperatiba pasa den otsailaren 23an aurkeztu zuten Kultur Etxean.



Nolako izan da kooperatibaren eratze prozesua?

Duela urtebete hasi ginen hilean behin elkartzeko eta Goiener izan da talde honen gidari, beraien esperientzia gurekin konpartituz, bai arlo juridikoan eta bai arlo tekniko-ekonomikoan.

Izaten ari garen oztopo nagusiak burokratikoak. horrez gain, orokorrean herritarrek informazio gutxi daukate komunitate energetikoen eta energiaren inguruan. Orain arte, urrun geratu zaizkigun gaiak izan dira hau mahai gainean jartzea eta guztion parte hartzea izatea ez da guztiz erraza. Baina pixkanaka ari gara.

Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?

Helburu nagusia, Zestoak, burujabetza energetikoa lortzeko bidea aztertu eta soluzio teknologiko eta soziopolitikoak aurkitzea da.

Baina aurretik, beharrezkoa da gaiaren inguruko lanketa egitea, kontzientzia hartzen joatea eta ahalduntzea. Alferrik ari gara energia sortzeko bide berriztagarriak aztertzen, kontsumo maila handitzen jarraitzen badugu. Beraz, hortik gure beste helburu bat, energia-kontsumoa murrizteko Kontzientziarioa lantzea.

"Kontsumo maila jaisteko proiektuak ere garatu beharko ditugu. Adibidez, herri mailan kotxea konpartitzen hasteko plataforma"

Hori da talde honek bilatzen duena, hausnarketa kolektibo baten bitartez, modu kritiko eta kontziente batean, soluzio demokratikoak eraikitzea. Gure lana behetik gorakoa izango da.

Kooperatiba autonomoa dela diozue, zergatik? Zer paper bete du eta betetzen du egun Udalak?

Autonomoa dela esaten dugu Udalarekiko eta Goienerrekiko independenteak garelako. Goiener gure bidelaguna da. Beraien zeregina energia gaian gu "ahalduntzea" da, baina erabakiak Argiolan hartzen ditugu modu autonomoan.

"Goienerrekiko eta Udalarekiko autonomoak gara, baina Udala beti agertu da laguntzeko prest"

Eta Udalarekin berdin. Udalak Goienerrekin sinatutako hitzarmenari esker sortu ginen. Baina ondoren, lan guztia herritarren borondatez eta inplikazioz egin dugu, Goienerren laguntzaz. Orain, Argiola independentea da. Orain arte Udala beti agertu da laguntzeko prest. Esaterako, berarenak diren teiltuak, instalazio fotovoltaikoak egiteko erabili ahal izango ditugu.

Zergatik uste duzue garrantzitsua dela autogestioa?

Beharrezkoa delako energia eredu energetiko demokratiko eta justuago bat eraikitzeko. Izan ere, egungo eredu energetikoan, energia negozio gisa ulertzen da eta erdigunean etekinak jartzen dira. Eta hori horrela izan ez dadin, gure herriko proiektuak guk kudeatzea beharrezkoa da.

Zeintzuk dira eskuartean dituzuen proiektuak?

Momentu honetan bi proiektu garatzen ari gara, autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak direnak. Bata Aizarnako frontoian eta bestea Arroa-beko eskolan. Bi teiltatu horien azterketa teknikoak egina dago jada, eta

orain, proiektua bideragarria izateko baldintzak zeintzuk izan behar duten zehazten gabilta.

Beste teknologiatan ez dugu sakondu oraindik, baina asmoa badaukagu. Aurrerago, pentsatu beharko dugu, ia basoetako enborrak erabili ditzakegun biomasa egiteko ala ez. Proiektu hauek energia sortzeari daude zuzenduta baina beste proiektu batzuk garatu beharko ditugu kontsumo maila jaistea lortzeko. Adibidez, herri mailan kotxea konpartitzen hasteko plataforma bat sortzea beste proiektu interesgarri bat litzateke. Zestoak zer potentzial energetiko duen aztertu behar dugu zer beste teknologia garatu ditzakegun ikusteko.

Bestetik, aholkularitza zerbitzu bat eskaini nahi dugu, herritarrentzat lagungarria izan daitekeena. Bulego txiki bat, herritarrak bertara hurbildu ahal izateko eta energiaren inguruan dituzten galderak argitzeko: fakturen inguruko zalantzak, kontsumoa nola murriztu, eta abar.

ZERGATIK EGIN BAZKIDE?

Herritar guztiak animatu nahi ditugu gurekin hausnartzera, zer egin dezakegun eta zer ez pentsatzera.

ZER ESKATZEN DA?

Hamar euroko ekarpena eskatzen da bazkide egiteko. Ez da zertan aditua izan behar energia gaietan, guztiak gaude berria den zerbaiten aurrean, beraz, denek ekarpenak dira aberasgarriak.

Parte hartzeko modu ezberdinak daude: pertsona bat izan daiteke bazkide, baina proiektuetan parte hartu nahi duen ala ez erabaki dezake, bai eta parte hartuz gero zein proiektutan sartu nahi duen.

NOLA EGIN NAITEKE BAZKIDE?



<https://labur.eus/argiola-bazkidetu>

2019-2023

Zaintza hausnarketatik aktibaziora

2019an gizartearen zahartzeari aurre egiteko eredu berri baten beharra zegoela adostu zenetik ia lau urte igaro dira. Bitarte horretan hainbat urrats eman dira. Gaur egun auzozainen formazio, identifikazio eta aktibazio fase batean aurkitzen da proiektua.



EGOERAREN PARTEKATZEA (2019)

Egoera zaugarrian gero eta adineko gehiago egongo direla jabetuta eta horren aurrean udalak eskaini ditzakeen baliabideak eta bestelako zerbitzu formalek duten irismena kontuan izanik, ondorio batera iritsi ziren Zestoako Udala, San Juan Egoitza eta 3Z Elkartea; elkarzaintza dela eredu.

ADINEKOEN MAHAIA (2020)

Pandemiak adinekoen egoera zaugarriak agerian utzi zituen eta lehendik zetorren hausnarketatik ekintzara pasatzeko adinekoen mahaia eratu zen.

AZTERKETA DEMOGRAFIKOA (2020-2021)

Zestoako gizarteak zaintza ikuspegitik dituen beharrei erantzuteko ezinbestekoa den azterketa demografikoa bi fasetan egin zen, 2020an eta 2021ean.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN DIRU-LAGUNTZA (2021EKO UDABERRIA)

'Izarraitz' zaintza komunitarioarako proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso zuen. Hori baliatuz udalak Hirube Kooperatiba kontratatu zuen zaintza komunitarioaren proiektua aurrera eramateko.

TEKNOADINEKO SISTEMA INFORMATIKOA MARTXAN (2022KO OTSAILA)

Sistema informatikoa bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako herritarrak identifikatzen ditu eta zaugarritasun egoeraren bilakaeraren argazkia ematen du.

AKTIBAZIO KOMUNITARIOA (2023-2024)

Hautatu gabeko bakardadeari aurre egiteko herri eragileen saretzea bultzatzea da helburua. Hirube Kooperatiba 2024ko otsailerako amaitua utziko du zaintza komunitarioaren diseinua.



Ane Lizaso: "Edozein zestoarrek lagundu dezake inguruko egoeren detekzioan eta zaintzan"

Auzozaintza komunitarioaren proiektua kudeatzen ari da Hirube Kooperatiba eta bertako teknikaria da Ane Lizaso. Astean hiru egunez etortzen da udalera eta bere ardura da zaintza komunitarioaren proiektuak aurrera egin dezan zeregin desberdinak kudeatzea.

Zein da zehazki zure lana?

Batetik adinekoen beharrak identifikatzea, bestetik oraintxe amaitzen ari naiz auzozain profesionalen formazioa eta auzo elkarteekin hasi naiz hitz egiten. Era berean Jubilatuen Elkartearekin ekintzak diseinatzeko ari gara, adinekoentzat dauden ekintzak agenda batean kokatu nahi baititugu.

Nor izan daiteke auzozain?

Edonork lagundu dezake inguruko egoeren detekzioan eta zaintzan. Guk

hiru mota bereizten ditugu: Profesionalak (etxez-etxeke zerbitzuetako langileak, udaltzainak, Osakidetzako langileak); Komunitarioak (auzo elkarteak, kiroldegiko langileak, apaiza, okina...) eta auzozain hautatuak (adineko pertsonak bera zaintzeko hautatzen duena).

Zer suposatzen du auzozain izatea?

Auzozain izateak ez du derrigorrez esan nahi zaintza zereginak egin behar direnik, detekzioa ere auzozain lana da. Adibidez, adineko bat errenka dagoela ikustea eta bere egoeraz galdetzea edo erosketak egitera atera ez dela jakinaraztea. Bestelako konpromisoak ere har daitezke; adibidez, astean behin edo bitan berarekin solasaldiak izatea... Modu askotara izan daiteke norbait auzozain. Baina azpimarratu nahiko nuke ez dagoela konpromiso idatzirik eta adinekoak onartu egin behar duela zaintza hau.

AUZOZAIN BEZALA IZENA EMATEKO

Telefonoa: 688 816 943 (Ane)


E-posta: anelizaso@hirubekoop.eus

CUIDADO COMUNITARIO: UN RECORRIDO DESDE LA REFLEXIÓN HASTA LA ACTIVACIÓN

Han pasado casi cuatro años desde que en 2019 se viera la necesidad de un nuevo modelo para combatir el envejecimiento de la sociedad. Durante este tiempo se han dado varios pasos. En la actualidad el proyecto se encuentra en una fase de formación, identificación y activación.

Irikaitz denbora lerroa: Nolakoa izango da?

Zubiaurreko futbol zelai zaharra zegoen eremuan “Irikaitz denbora lerroa” bezala bataiatutako egitasmoak jaso zuen urtarrean Gipuzkoako Foru Aldundiko ondare sailaren hasierako oniritzia eta une honetan Orein Bike enpresa proiektua idazten ari da, Zestoako Udalak egitasmoari emandako definizioa oinarri izanda. Urtebeteko epean, lanak burututa, herritar guztiek espazio honetaz gozatzeko aukera izatea aurreikusten da.



- Aztarnategien inguruko informazioa
- Bizikleta gunea
- Oinezko Denbora Lerro ibilbidea
- Sarrera / Irteera
- Zirkuitu Berdea ||||
- Zirkuitu Urdina ||||
- Zirkuitu Gorria ||||

ZER DA?

Zestoako ondare arkeologikoan barrena bidaia egiteko eta berau ezagutzeko aukera eskaintzen duen bi ibilbideko instalakuntza.

NORI DAGO ZUZENDUA?

Adin tarte guztiek modu ludikoan erabiltzeko espazioa da (3 urtetik aurrerako haurrak, gazteak, helduak, familiak...). Era berean, ikastaroetarako zein profesionalen entrenamendueta-rako ere egokia da.

ZER ERABILERA EGIN AHAL IZANGO DA?

Bizikletak, patinak, monopatinak edo mikropatinak erabiliz, “Pump Track” ibilbideak Zestoako gune arkeologiko ezberdinetara eramango gaitu. Horrez gain, instalakuntzaren kanpoaldean dagoen oinezkoentzako bidetik ere egin daiteke bidaia.

ZER DA “PUMP TRACK” BAT?

Ondulazioak eta peralteak dituzten asfaltzoko zirkuitu borobilak dira, patinatzaila zein txirridularientzako entrenamendu eta aisialdi gune gisa erabiltzen direnak. Edozein gurpildun ibilgailurekin erabili daiteke, mantenu erraza du eta, bustita egon arren, zirkuituak segurua izaten jarraitzen du.

Mikel Arregi, Zestoako alkatea: “Gipuzkoako eta Euskadiko historiaurreko ondarerik aberatsenetakoa duen udalerrian bizi gara”.

ZESTOAKO ONDARE ARKEOLOGIKO BALIOAN JARTZEA

Legealdi honetan Zestoako Udalak aspaldiko asmo bat errealtate bilakatzea lortu du, herriko ondare arkeologikoa aisialdi gune baten bidez balioan jarriz eta historiaurreari buruzko ezagutza gizarteratuz.

Ez dugu ahaztu behar Irikaitzekoa dela Kantauri isurialdeko datazio zientifiko zaharrenetakoa duen aurkikuntza arkeologikoa. Zestoan ditugu baita ere Ekaingo haitzuloa eta Lili Jauregia. Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatu Mari Jose Telleriak otsailean Zestoako Udal Gobernuarekin egindako bileran Zestoako ondare kulturalak lurraldearentzat duen balioa azpimarratu zuen.

El proyecto, bautizado como “Irikaitz denbora lerroa”, que se ubicará en la zona en la que se encontraba el antiguo campo de fútbol de Zubiaurre, recibió el pasado mes de enero el visto bueno final del departamento de patrimonio de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en estos momentos la empresa Orein Bike está redactando el proyecto en base a la definición que el Ayuntamiento de Zestoa le ha dado. En el plazo de un año, culminadas las obras, se prevé que todos los vecinos puedan disfrutar de este espacio.

Mari Jose Telleria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua: “Zestoak duen kultura eta historiaurreko ondareak balio handia du lurraldearentzat”.



Zestoa, Getaria eta Aizarnazabalen arteko lankidetzaren hitzarmena

Gero eta gizarte konplexuagoa da gurea eta pertsonen eta adin txikien osasun psikosozialean eragina izaten ari da. Hiru herrien arteko lankidetzak zerbitzu osatuago eta hobeto bat ematen lagunduko du eta pertsonak erdigunean jarriaz gure gizarteak dituen beharrak asetzeko, beste lankidetzak batzuetarako ere baliagarria izango da hiru herrien arteko lankidetzak.

Foru plazaren berrikuntza lanak: 2023an lanen jarraipena eta 2024an lanen amaiera

2023 urtean Foru Plazaren konponketa lanekin jarraitu du Udalak. Aurten Eliz kaleak eta elizak bat egiten duten izkinaraino berrituko da herriko plaza nagusia. Aurreikusitako konponketen aurrekontua 44.295,29 eurokoa da.


2024 urtean konponketen azken fasea gauzatu nahi du Udalak eta honela, plaza guztiaren zorua berrituta geratuko litzateke.



Narrondo auzoa eta Etorra bailarako baserrientzat ur hornidura

Zestoa azalera handiko herria izanik, baserri gune asko ditu eta horietako askotan oinarriko zerbitzuak hobetu beharra daude. 2023 urtean Zestoako Udalak Etorra bailarako baserriak sare publikotik hornitzeko azterlan teknikoa egingo du eta Larrazabal Bideko bost baserri urez hornitzen dituen depositua berritu nahi du.

Narrondoko proiektuaren idazketa esleitu da dagoeneko eta teknikariak dokumentua garatzen ari dira. Etorra bailarako proiektuaren dimentsioa askoz handiagoa denez, bi zatitan egitea aurreikusten da eta exekuzio lanak datorren legegaldian zehar egingo lirateke.



Kiroldegiko estalpearen birmoldaketa lanak

Kiroldegiko pilotalekua eta ondoko eremuaren estalpea berritzeko lanak maiatzaren 4an hasia aurreikusten da eta horretarako 15 egun lehenago ondoko aterpe erantsiaren egitura kenduko da. Obraren iraupena 6 hilabete ingurukoa izango da eta estalpearen azalera eguzki plakak jartzeko baliatuko da. Uztapide plazako parkea eta Axun Arrazola plaza ahal den neurrian irekita mantenduko ditu Udalak, beti ere segurtasun baldintzak betetzen direla egiaztatuz. Obra bukatzen denean ondoko parkea ere eraberritu egingo da.



Arroabea auzora sarrera eta irteera berriak

Arroabea auzoan eraikitzen ari diren etxebizitza berrien kopurua ikusita eta lehendik auzo honek trafiko aldetik zituen gabeziak identifikatuta, Zestoako Udalak 2023 urtean lizitazio publikora aterako ditu auzoan ibilgailuentzat sarrera eta irteera berria egokitzeko lanak.

GI-631 errepidetik sarbidea

Auzorako sarbide berria GI-631 errepidearen adar baten bidez egingo da. Sarbidea Olaeta kalean instalatutako transformazio-zentrotik gertu egitea aurreikusten da.

N 634 errepidera irteera

Irteera berria N-634 errepidera egokituko da, gaur egun Kultur Etxea dagoen eremua-
ren ondok.

Obraren exekuzioa proiektuan aurreikusitako aurrekontua 374.723,64 eurotakoa da eta epe motzean lanak lizitazio publikora ateratzea aurreikusten du Udalak.



Aizarnan herri sarrerako galtzada-harriak eta plazako petrilen gaineko harri xaflek berritzeko lanak udaberrian egingo dira

Aurrekontu parte-hartzaileen prozeduran aurrera atera zen proiektuetako bat Aizarnan herri sarreran dauden kale harrien berriztapena izan zen. Lan hauek maiatzaren hasieran aurreikusten du Udalak. Gainera, plazako hormen gaineko harri xaflen egoera kaskarra dela eta, hauek berritzeko egitasmoa ere martxan jartzea erabaki du Udalak.

Bi lan hauen aurrekontua 23.342,91 eta 6.326,95 eurokoa izango da hurrenez hurren.

ZESTOA 2030 | Herri Plangintza

2030eko Zestoa begiratzeko sei arlo

2019an, Udal Gobernu honen legegintzaldiaren hasieran, prozesu parte hartzaile baten bidez, 400 herritar baino gehiagok 2030eko Zestoa irudikatzeko lanketa egin zuten. Haren emaitza 10 urtera begirada jartzen zuen plan estrategikoa izan zen, **Zestoa 2030 Herri Plangintza** izeneko dokumentuan jaso zena. Dokumentu horrek pentsaera eta izaera desberdineko herritarrek eta eragileek adostasunez onartutako helburuak eta horiek lortzeko bide-orriak jaso zituen. Herri plangintzan jasota hainbat eragitasmo jada martxan dira.



1. Zestoa Globaletik Lokalera

Mundu globalizatuaren aurrean gero eta mendekoago bihurtu gara, konpainia multinazional eta hemendik urrun dauden erabakien menpeko. Horregatik, Zestoa 2030 herri plangintzan munduari Euskal Herritik eta Euskal Herriari Zestoatik begiratuaz, etorkizunerako erronkak zehazten dira. Horren adibide dira ezarritako hainbat helburu: alokairu soziala, energia komunitatea eratzea, zaintza komunitarioa martxan jartzea, elikadura burujabetza lantzeko biltarkeak...

2. Zestoako herri nortasuna eta kultur ondarea zaindu

Nondik gatozen eta gure aurrekoek bizitakoak oroitzeko Memoria Historikoaren lanketa egin da eta Zestoa 1936-1945 liburua argitaratzen da. Zestoa herri euskalduna da eta azken garaietan nozitzen ari garen hizkuntz ohitura aldaketei aurre egiteko Euskara Foroa sortu da.

Kultur ondare garrantzitsua du zestoak: musika, antzerkia, dantza, ondare arkeologikoa... Guzti hau balioan jarri, ezagutzera eman eta zaintzeko neurriak jasotzen ditu herri plangintzak.

3. Ingurumena eta trantsizio ekologikoa

Ingurumen krisi erraldoi batean murgiltzen gaude eta gurean negutegi eragina duten gasak murrizteko urratsak ematen hasi gara, energia berriztagarria bertan ekoizten hasteko aurrerapausoak eman dira, elikadura burujabetzarako nekazal eremuak ere izendatu dira eta "Biolur" bezalako eragileekin ere Zestoako Udala harremanetan aurkitzen da.

Isurtzen dugun karbonoa xurgatzeko baso politika egoki bat egitea ere ezinbestekoa da eta korridore ekologikoak gurean hartzen dituen baso eremuak erosteko partida ekonomikoa indarrean jarri da.

4. Pertsonetan oinarritutako hirigintza

Etxebizitza politikari dagokionean babes publikoko alokairu sozialeko etxebizitzaren aldeko hautua egin da, eta horretarako "Korreos" egoitza eta Kale Okerra izendatu dira. Herriko gazteek emantzipaziorako etxebizitza alokairu duin batean eskuratzeko duten eskubi-dea erdigunean jarrita.

631 erreproidearen bulebarizazio proiektua eginda dago eta herri barneko zirkulazioa berrantolatzeke plana ere eginda dago, ibilgailuen aurretik oinezkoek lehentasuna izan dezaten.

5. Tokiko ekonomia

Sansinenea, Iraeta eta beste industria eremu batzuk ere baditu Zestoak. Lantegi horietako asko ez daude ordea herrian errotuta, beste herrietako langileak datoz lantegi horietara lanera, eta industrian lan egiten duten zestoar asko, berriz, beste herrietara doaz lanera.

Bestalde, lehen sektorearen etorkizuna eta landa eremuen biziberritzea jasotzen ditu planak eta berreri munduari egun duena baino garrantzia handiagoa ematea eskatzen du planak. Udala sektoreko hainbat ekintzailerekin harremanetan jarri da, tokiko ekoizpena eta komertzializazio zirkuitu laburren aldeko apustua helburu.

6. Udal baliabideen erabilera eraginkorra eta herritarren parte hartzea

Batetik, udala eta herritarren arteko komunikazioari tokia egin zaio. Arlo ezberdinetako mahaiak sortu dira eta pandemiak eragotzi ez duen bi urteetan aurrekontu parte hartzaileen bidez herritarrek kopuru jakin batera arteko inbertsioak erabaki ahal izan dituzte.

Bestetik, plangintzan definitzen diren erronkei berme osoz aurre egiteko Zestoako Udalak finantzaketa publikoa zaindu behar du eta 2030era bidean jasotzen diren erronkak egikaritzeko kaudimen eta bideragarritasun ekonomikoa bermatzea derrigorrezkoa izango da. Legealdi amaieran Zestoako udalak duen zorpetze maila eta kaudimena oso onak dira.


2030erako irudikatutako Zestoa

Nola goaz?


2023. urtean **Zestoa 2030 Herri Plangintzan** guztion artean irudikatu genuen Zestoa lortzeko zehaztutako ibilbidearen herena betea izango dugu. Horregatik, ezarritako helburuak lortzera bideratutako ekintza planaren betetze mailaren laburpena jaso nahi izan dugu, kontuan izanik, oraindik ere beste zazpi urte geratzen direla plangintza honen amaierara iristeko.

Denak ez dauden arren, dauden denak dira.

TOKIKO ESTRATEGIA




HERRI NORTASUNA ZAINDU



INGURUMENA ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURAK PERTSONEN ZERBITZURA



UDAL BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

